

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Toki-erakundeetan euskara sustatzeko 700.000 euroko laguntza-deialdia

Laguntzak eskatzeko epea apirilaren 23an amaitzen da

Ostirala, 2018.eko martxoak 23

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuak 700.000 euroko laguntzak onartu ditu euskara sustatzeko eta erabilera bultzatzeko helburuarekin, eta [toki-erakundeek eta udal mankomunatuak](#) proposaturiko jarduera-programetarako izango dira; hots, iazko azaroaren 1etik 2018ko urriaren 31ra bitarte garatutakoentzat.

Laguntzen [epea apirilaren 4an amaitzen da](#). Laguntzen bitartez, euskararen erabilera soziala gehitzeaz gain, hitz egiten dutenen kopurua gehitu nahi da, haurrek zein helduek hizkuntza ikasteko prozesua bermatuaz Nafarroa osoan; era berean, herri-administrazioak trebatu nahi dira zerbitzuak euskaraz eskaini ahal izateko eta, baita ere, euskararen erabilerari prestigioa emateko.

Deialdiak hiru modalitate ezberdin ditu. A modalitatea toki-erakundeek egindako programetarako da, eta 400.000 euroko funts-aurreikuspena du; B modalitatea, berriz, hainbat toki-erakunde elkarrekin landutako programetarako da, 200.000 euroko zuzkidura du, eta horietatik 50.000 proiektu onenari emango zaizkio eta gainerakoa aurkeztutako gainerakoen artean banatuko da; azkenik, C modalitatea euskarako zerbitzu tekniko berriak sortzeko eta finkatzeko izango da, eta 100.000 euroko funtsa izango du horretarako.

Modalitate bakoitzean, jarduera-eduki eta -programa hauek izango dute aukera laguntza lortzeko: A modalitatea: euskara sustatzea eta erabiltzea eremu kulturalen eta sozialean, errotulazio eta publikazio-programak, tailerrak, prestakuntza-ikastaroak, antzerkia, hitzaldiak, literatura lehiaketak, bertsolaritza, ipuin-kontaketa, hizkuntza ikastea, udalekuetarako bekak, erakusketak eta musika-emanaldiak; B modalitatea: euskararen erabilera soziala eta kulturala sustatzea; eta C modalitatea: euskarako zerbitzu teknikoak sortzea eta finkatzea. Guztiak ere Nafarroako Gobernuak abian jarritako Euskararen Plan Estrategikoaren bidez sustatuak dira.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira toki-erakundeen jarduera kultural edo denbora libreko jarduera normalizatuak; horiek egindako kanpainak, Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak direnak; eskola-jarduerak, ordutegi curricularrean egindakoak; edo toki-erakundeek kanpoko elkarteek eta erakundeek egindako jarduerak; eta erakunde pribatuekin egindako hitzarmenak, besteak beste.

Laguntza hauen xedeko jarduerak euskaraz egin beharko dira, edo, salbuespen gisa, gazteleeraz egin daitezke, jarrera positiboak sustatzen

badituzte eta gaztelaniadun biztanleei zuzentzen bazaizkie.